



naiz:

KULTURA

Shakespeareren 'Hamlet' euskaraz eskainiko dute hiru euskal taldek

William Shakespearere idatzitako 'Hamlet' lana lehenengoz euskaraz aurkeztuko dute datorren ostiralean, azaroaren 1ean, Luhusoko Harri Xuri sorkuntza lantegian, istorioa mende honetan eta euskal esparruan kokatuz.

NAIZ.INFO | LUHUSO | 2013/10/28



Azaroaren 1ean estreinatuko da Luhuson ikuskizun berria. (ARRIAGA)

'Hamlet' lanaren euskarazko lehenengo bertsio aurkeztuko dute datorren ostiralean, azaroaren 1ean, Luhusoko (Lapurdi) Harri Xuri sorkuntza lantegian. Aurreneko aldiz, ekoizpen batek euskaraz heldu dio William Shakespeareren drama famatuari, istorioa mende honetan eta euskal esparruan kokatuz. Euskarazko antzerkiaren aldeko aurrerapauso hau Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejaburi esker iritsida, horiek baitira muntaiaaren ekoizleak.

Luhuson izan ondoren, larunbatean, azaroaren 2an, Azpeitian taularatuko da, eta azaroaren 3an, igandean, Bilboko Arriaga Antzokian. Azaroaren 7tik 10era bitartean, ikuskizuna Donostiako Gasteszenan ikusi ahal izango da, eta gero jarraituko du Larresoro (azaroaren 11n), Hendaia (azaroaren 14an), Hazparne (azaroaren 15ean), Kultur Leioa (azaroaren 16an) eta Durangon (azaroaren 17an).

Ximun Fuchsen zuzendaritzapean, Xabier Mendiguren arduratu da obra moldatzeaz. Gure garaiko 'Hamlet' honekin, eszenatikira igoko dira Maika Etxekopar, Ainara Gurrutxaga, Miren Tirapu, Manex Fuchs, Ander Lipus, Urko Redondo eta Iñaki Ziarrusta.

'Errautsak' ikuskizuna eskaini ondoren, Artedrama, Dejabu eta Le Petit Théâtre de Pain antzerki taldeek bat egin dute Shakespearere sortutako mitoa berriro interpretatzeko. Orain eskaintzen dena, Xabier Mendiguren bertsioa da, eta gaur egungo gizartearen arazo eta ezaugarriak egokiturik dago.